

## 8. INFORMAZIOA ETA GATAZKA AHAZTUAK

(ARGAZKIA 22)

*Argazkian kartel informatiboen aztarnak ikusten ditugu, horien aurrean pertsona heldu bat egoera kaskarrean egonik. Zergatik ez dakigu gatazka honen inguruan informaziorako sarbide erraza eta ugaria badugu, inoiz baino informatuagoak baldin bagaude?*

*Informazio ezaren beste aldean, gehiegizko informazioa topatzen dugu, biak txanpon beraren bi aldeak izanik: desinformazioa. Gai bati buruz gehiegizko informazioa ematea beste alderdi batzuk baztertzea da, zeinak askotan garrantzitsuagoak diren, polemikoak edo argiagoak. Kasu askotan ez du esan nahi azken hauek ez direla aipatzen, baizik eta oso espazio gutxi eskaintzen zaiela besteekin alderatuz eta oharkabean pasatzen zaizkiola publikoari. Aldi berean, gai baten inguruan oso informatuak gaudela iruditzen zaigu, baina errealitatea ondo ulertzeko gakoak falta zaizkigula ez gara konturatzen.*



*Baina beste osagai bat gehitu behar diogu hau guztiari: zer gertatzen zaigu honetaz jakitun bagara eta hala ere ez badiogu jaramonik egiten? Ignorantzia? Indiferentzia?*

► *Infografia: “Entzungor jarraituko al duzu?” (Iturria: ALBOAN)  
[http://www.educacion.alboan.org/system/card\\_eus/2590/original/TLC\\_poster\\_02\\_eu.pdf?1446657912](http://www.educacion.alboan.org/system/card_eus/2590/original/TLC_poster_02_eu.pdf?1446657912)*

## 8. INFORMAZIOA ETA GATAZKA AHAZTUAK

(ARGAZKIA 22)

<b>Ahaztutako beste gatazka batzuk</b>	
Somalia	Gaur egun, biztanleen %31 laguntza humanarioa behar du, 325.000 haur desnutrizio egoeran daude, eta milioi bat somaliar baino gehiagok atzerrira joan behar izan dute, adibidez, Kenian dagoen Dabaab errefuxiatu esparrura. Herrialdean bertan dauden lekualdatuak ere ez ditugu ahaztu behar, gainera, 2006 urteaz geroztik, Al-Shabaab talde terroristaren ekintzen ondorioz, zifrek gora egin dute.
Eritrea	Eritrea Etiopiatik independentzia 1993an lortu zuen arren, mugaren ondoriozko gatazkak 100.000 hildako eta 1.000.000 errefuxiatu eragin zituen. Gainera, Eritrean 9 etnia baino gehiago egon arren, identitate nazional bat gailendu zuen gobernuak, euren arteko gatazkak sortuz. Giza eskubideen bortxaketa kasuak amaigabeak dira.
Yemen	1990eko maiatzean batu ziren Yemengo bi errepublikak eta ordutik liskarrak egon dira lehen zeuden bi errepubliken artean. Gaur egungo liskarrak hamarkadak atzera zegoen liskar berdinean oinarritzen da: klanak eta sektak, eta oraingo honetan Saudi Arabia eta Irango gobernuak direla tarteko batez ere talde armatuen finantziazioan.
<b>Iturria:</b> norberaren lanketa “Medicos Sin Fronteras” eta Nazio Batuen webguneetan oinarrituz	